

Gerra zibil turistikoa

WARWICK



INDALENCIO OJANGUREN

Ezkerrean, Nazionalak Irunen antolatutako mutikoen desfilea, hiria hartu ondoren, 1936an. Eskuinean, Irungo Udala 1942an. Gipuzkoako hiria Iparraldeko Gerra Ibilbide turistikoaren abiapuntua zen.

IRUN, 1938KO UZTAILA. Ibilbide turistiko bitxia abiatu zen lehenengoz, bi urte lehenago piztutako gerraren gune nagusiak bisitatzeko. Nazionalak, pixkana-pixkana, aurrera egiten ari ziren eta, maiatzean, dekretu berri baten bidez, Turismo Zerbitzu Nazional frankista zirkuitu turistikoa antolatzen hasi zen, Iparraldeko Gerra Ibilbidea delakoa bisitatzeko: gudu zelaiak, gune kalte-tuak, babeslekuak....

Bidaia agentzia bereziaren helburua bikoitza zen. Batetik, dibisak pilatzea, bidaia gehienak atzeritarrak baitziren. Bestetik, bisitariekin propaganda lana egin nahi zuten frankistek, eta asmo horretan ere turisten jatorri anitza lagungarri zen.

Bidaia abiapuntua ez zuten deskuiduan aukeratu. 1936ko irailaren hasieran, Irungo gudua eta frankisten garaipena funtsezkoa izan zen Gipuzkoako Kanpainan, Iparraldeko Ofentsiba hasi baino lehen. Hiria hartuta, muga, eta beraz Frantziako Estatuarekiko lehorreko lotura eten zuten; hala, penintsula iparraldeko errepublikazaleen arma hornikuntza oztopatu zuten.

Ibilbidea Oviedoraino iristen zen eta, besteak beste, Donostian, Bilbon, Santanderren eta Gijonen egiten

zituzten geldialdiak. Handik gutxira beste ibilbide bat prestatu zuten, bereziki turista portugaldarrak erakartzeko: Galiziako Tui herrian abiatu, Santiagotik pasa eta Gijoneraino iristen zen. Eta hilabete batzuk geroago, nazionalak penintsula hegoaldea kontrolatu ahala, Hegoaldeko Gerra Ibilbidea ere antolatu zuten.

Turismo Zerbitzu Nazionalaren autobusetan egiten zituzten bidaia, bisitarien hizkuntzetan trebatutako bide-erakusleak lagun. Bisitaldiak eta azalpenak ez ziren soilik gerrari buruzkoak, arduradunak konturatu baitziren propaganda eragingarriagoa zela gudu kontu gordinak eduki kulturalekin goxatuz gero. Bidaia maiztasuna gorabeheratsua izan zen, baina gerra amaitu ondoren ere iraun zuten, 1945 arte.

Propaganda ahaleginen emaitza balioestea ez da erraza: 20.000 turista inguruk egin zituzten ibilbideak —errepublikanoen aldean, esaterako, nazioarteko brigadistak 40.000 inguru izan ziren— eta, gainera, ezin esan zenbateraino doktrinatu zituzten. Bigarren helburuak, ekonomikoak, ez zuen emaitza kaxkarra izan: garaiko zortzi milioi pezetako irabaziak izan zituen proiektuak. ■



Arrastoak

Cristobal Colon galiziarra “ere” bazen

DOMENICO GHIRLANDAIO



CRISTOBAL COLON GALEGO elkar-teak mapa nautiko bat aurkeztu berri du marinel ospetsuaren jatorri galiziarra frogatu nahian. Maparen arabera, Colonek Pontevedrako itsasadarreko 45 toponimo erabili zituen Amerikako beste hainbeste leku izendatzeko. Toponimoen artean, Santa Ana, San

Salvador, La Granja eta halakoak daude, izen oso zabalduak, eta beraz Galiziako elkartearen tesia indartzen laguntzen ez dutenak. Horrenbestez, Colonen ustezko sorterrien zerrenda luzeak hazten jarraitzen du: Katalunia, Andaluzia, Extremadura, Grezia, Korsika, Portugal, Kroazia... ■